

XXXI. Liburu eta Disko Azoka gaur hasiko da eta uztailaren 9a arte egingo da, Gipuzkoa plazako postuetan

Ion Lopez

Donostiako XXXI. Liburu eta Disko Azoka dela eta gaurtik aurrera kalean izango dira euskal argitaletxe gehienen lanak. Gipuzkoa plazan jarri dituzten postuetan gaurtik hasi eta uztailaren 9a arte egingo da azoka, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Euskal Herritik, Kataluniatik, Madrildik eta Perutik etorriko dira aurtengo azokan postu jarriko duten argitaletxe eta banatzaileak.

Euskadiko Liburu Ganbarako presidente Asier Muniategi izan zen atzoko aurkezpenean eta esan zuenez, gaur egungo euskal argitaletxeen egoera ona da: Gaur egun egoera nahiko ona dela uste dut. Ez dago aldaketa handirik aurreko urteekiko. Euskal Herrian 3.400 liburu kaleratzen dira urtean. Horietatik %49,1 euskaraz argitaratzen dira, hau da, 1.600 liburu inguru urtean.

Irakurketari dagozkion zenbait datu eman zituen Muniategik: Irakurketa datuak antzekoak izaten jarraitzen dute. Emakumezkoek gizezkoek baino gehiago irakurtzen dute, eta gazteek helduek baino gehiago. 14 eta 24 urte bitartekoek irakurtzen dute gehien, eta erretiratuak gutxien. Salmentari dagokionez, erosleei herrietako liburu denda txikietara joateko eskatu zien Muniategik.

Aurtengo azokan hainbat ekitaldi egingo dituzte. Egunero liburuak aurkeztuko dituzte San Jeronimo kaleko liburutegiko sotoan. Arratsaldetan ere poesia errezitaldiak eta musika eta literatur ikuskizunak izango dira.